

**GOGORAK DAUKAN INFORMAZIOA ANTOLATZEKO ETA ESKURAGARRI JARTZEKO APLIKAZIO  
INFORMATIKO BAT OSTATZEKO EJIE-RI EGIN BEHARREKO KUDEAKETA GOMENDIOARI  
BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOA.**

---

LT 2017/31

**I.- AURREKARIAK**

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak goian aipatutako kudeaketa-gomendioari buruzko txostena eskatu du. Institutuaren zuzendariaren Ebazpenarekin batera espedientean honako agiri hauek daude: oroitza eta gastua onartzeko ebazpena.

Txosten hau oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) atalean, eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 188/2013 Dekretuaren 13.1 a) atalean.

**II.- HITZARMENAREN AZTERKETA****A). Eskumenak**

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9. artikuluan ezarrita dago zein den euskal botere publikoen jarduera gidatu behar duen funtsezko xedea, eta hor sartzan dira herritarren oinarritzko eskubide eta betebeharren erabilera egokia bermatzea, bizi-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatzea, eta gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitea eta oztopoak desagerraraztea. Memoria demokratiko bat gestionatzeak lotura zuzena du askatasuna, berdintasuna eta giza duintasuna bezalako balioak lehengoratzearekin eta bultzatzearekin.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 4. artikulua araberako Jaurlaritzaren Lehendakariari dagozkio giza eskubideak eta bizikidetzaren sustatzea eta biktimen eta memoriaren politikak zuzendu eta koordinatzea. Halaber,

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Estatutuei buruzko azaroaren 3ko 204/2015 Dekretuaren 3. artikulua bat etorrira Institutuaren eginkizuna da Euskadiko memoria demokratikoaren ondarea gordetzeko lana egitea haren euskarri material guztietan. Horretaz gain, dekretu horren 15. artikulua ezartzen du Ikerketa eta Artxibo Zerbitzuak honako eginkizunak dituela:

c) Memoriari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko informazioa eta dokumentazioa biltzen dituen funts publikoa sortzea eta mantentzea.

e) Indarkeriaren, terrorismoaren eta memoria historikoaren datuak eta lekukotasunak artxibatzea.

Bestalde, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Estatutuei buruzko azaroaren 3ko 204/2015 Dekretuaren 11.2 artikuluaekin bat etorrira Institutuko zuzendariari dagokio kudeaketa-gomendio hau egitea.

## **B) Kudeaketa-gomendioaren oinarri juridikoa**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua arabera organo administratiboek beraien egitekoak Administrazioaren beste organoen edo erakundeen esku utzi ditzaketela, kudeaketa-gomendioaren bidez. Horretarako, honako baldintza hauek bete behar dira: egiteko horiek izaera materiala edo teknikoa izatea eta kudeaketa egiten duen organoak edo erakundeak eginkizunak egiteko baliabide teknikoak izatea. Hamaikagarren artikulua ezartzen du Administrazio bakoitzak arautu ahal dituela kudeaketa-gomendia baliogarria izateko beharrezko diren baldintzak, baina gutxienez aipatu beharko direla kudeaketa-gomendioari dagozkion jarduerak, epea eta izaera.

Gauzak horrela, Informazio eta telekomunikazio sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazio, eraketa eta banaketa arautzen dituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak (apirilaren 21eko, 94/2009 Dekretuak emandako erredakzioaren arabera), honako hau ezartzen du:

*Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak, SA sozietate publikoak bete beharreko kudeaketa-gomendioak.*

*Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak SA (EJIE) sozietate publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari zerbitzu informatikoak emateko ardura izango du, beti sorrera eta jarduera ezartzen dituzten arauetan, dekretu honetan eta aplikagarri diren gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera.*

*Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zerbitzu-programa eta aplikazio-sistemen ustia ketaren eta ingeniariaren arduraren Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak SAK izango du beti ere.*

*Funtzio horiekin batera, sailek eta erakunde autonomoek, dekretu honetan ezarritakoari jarraiki, informatika-arloko bestelako egitekoak ere EJI Eren esku utziko dituzte (laguntza teknikoaren barne). Horretarako, beharrezko kudeatzeko gomendioak bideratuko dira, aplikatzeko den araudian eta sozietatearen estatutuaren ezarritakoaren arabera. Gomendio horien bidez honako hauek zehaztuko dira: EJI Ekin egin behar diren jarduerak, erdietsi beharreko helburuak eta emaitzak, eta prezioak. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak ezarriko dituzte tarifak, nahikotasun ekonomikoko eta finantzarioko irizpideak aplikatuz eta, hala badagokio, EJI E berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko gisa baliatzen duten gainerako erakundeek parte hartuz.”*

#### **D) Kudeaketa-gomendioaren xehetasunak**

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariaren ebazpenak kudeaketa-gomendioaren hainbat aspektu arautzen ditu. Lehen atalak xedea finkatzen du eta bigarren atalak EJI Ekin, 2017 urtearen zehar, egin beharreko jarduerak aipatzen ditu. Bestalde, hirugarren atala emaitzen eta kudeaketaren kontrolaren inguruko da. Laugarren atalean zehazten da Institutuak, 2017 urtean, EJI Eri kontzeptu bakoitzeko ordaindu beharreko diru kopurua.

Bosgarren atalak kudeaketa-gomendioaren indarraldia finkatzen du, hain zuzen ere, 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte, eta azaltzen du ez duela luzapenik izango. Honen harira, egokiagoa izango litzateke indarraldiaren hasiera, urtarrilaren 1ean ipini beharrean, Institutuaren zuzendariaren ebazpena sinatzen duen eguna jartzea. Azkenik, seigarren atalak adierazten du kudeaketa-gomendioak izaera administratiboa duela eta horren interpretazioa administrazioari dagokiola.

### **III. ONDORIOA**

Lehen aipatutako arauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen direnez, nire txostena kudeaketa-gomendioaren aldekoa da.

Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.